



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Khutulunek ez zuen ezkondu nahi

Mongolen Inperioa, XIII. mendearen bigarren erdia. Gengis Khanek sortutako inperioa lau zatitan banatuta zegoen, eta lau khane-rrietatik bi gerran egon ziren 30 urtez: Kublai Khan buru zuen Khan Handiaren Inperioa -Txina konkistatu berria barne hartzen zuena- eta Kaiduren menpe zegoen Txagatai khanerria.

Kaiduren armadaren buruzagi nagusia Khutulun (1260-1306) zen, soldadu ausarta, estrategia bikaina eta Kaiduren 15 seme-alaben artean, alaba bakarra. Marko Polok horrela deskribatu zuen Khutulun: "Oso ederra zen, baina baita

indartsua eta ausarta ere, eta aitaren erresuma osoan ez zegoen gizonekorik indarrean eta balentrietan gailenduko zitzaionik". Mongoliar guztiak bezala, gizon nahiz emakume, zaldizko bikaina zen; arkuarekin ere oso trebea zen, baina horretan ere ez zen emakume bakarra, Gengis Khan birraitonak emakume guztiak arkuarekin trebatzeko agindua indarrean jarri baitzuen bere agintaldian.

Baina genero berdintasuna horretara mugatzen zen, eta Khutulun gaztetatik bultzatu zuten ezkontzera. Khutulunek ez zuen ezkondu nahi eta baldintza zorrotza jarri zuen amore emateko: *bökh*

izeneko mongoliar borroka tradizionalen irabazten zion gizonarekin ezkonduko zen. Hautagaiek 100 zaldi eman behar zizkieten khanaren alabari borrokan galduz gero eta kondairak dio 10.000 zaldi lortu zituela.

Azkenean, Khutulun Ghaza Khan izeneko gizon batekin ezkondu zen, kome- nientziatz, etsaiek bere sexualitateari, generoari edo aitarekin omen zeukan intzestuzko harremanari buruz zabal- dutako zurrumurruek isilarazteko. Aita hil zenean, emakumea izanik, ez zuen haren tokia hartzeko aukerarik izan, eta anaietako baten alde egin zuen boterea eskuratzeko gatazkak piztu zirenean. 46 urterekin hil zen, edo hil zuten, haren he- rriotzaren kausak ez baitira sekula argitu.

Europar, Turandot pertsonaiaren ins- pirazio iturri izan zen Khutulun, eta be- reziki Pucciniren izen bereko operaren bidez egin zen ezagun. Mendebaldean, horrenbestez, irakaspen argia dauka Khutulunen edo Turandoten istorioak: emakume indartsuak botereari uko egi- ten dio gizon baten maitasunagatik.

Mongolian ere oraindik badu eragina Khutulunek; zehazki, gaur egun *bökh* borrokaldietan erabiltzen den janzke- ran. Borrokalariak bularra agerian du- tela aritzen dira, Khutulun hildakoen artetik itzuli ez dela ziurtatzeko. Alegia, *bökh* lehiaketetan emakumeek parte hartzea eta Khutulunek bezala gizon- koak mende hartzeko aukera saihe- sten dute. ●

Khutulun
(eskuinean)
'Marco Polo'
telesailaren
arabera.



NETFLIX

Nafarroako memoria guneak

Duela hiru urte memoria historikoari buruzko 29/2018 Foru Legea onartu zene- tik, 1936ko gerrari lotutako 17 gune izendatu ditu Nafarroako Memoria Ins- titutuak. Eta berriki espaciosdememoria.com/eu/ plataforman 17 guneren fitxak eta zenbait ibilbide jarri dituzte herrita-

rren eskura. Datozen hilabeteotan fitxa eta ibilbide gehiago gehituko dituzte, beti ere egitasmoaren helburua kontuan hartuta: hezkuntza zentroei, memoria- ren aldeko elkartei eta, oro har, herri- tar guztiei memoria kritikoa lantzeko tresnak eskaintzea. ●



NAFARROAKO MEMORIA INSTITUTUA